

ZORITXARREKO SEKRETUA

Mikela Atxoarena, 13 urte

Arrosa, Lapurdi

Duela hamahiru urte, gurasoek Oihana deitu ninduten; egia erran, nire bizia Amazoniako oihan trinkoa bezain nahasia zen: hostoak, adarrak... denetatik heldu zitzaizkidan, baina nire arbolaren erro nagusia moztu egin zitzaidan bost urte nituelarik. Hala, zortzi urte dira aitag zeruko norabidea hartu zuela, ama eta biok dohakabetasun osoan utziz. Gogoan ditut Aldude herri politeko gure zorion-urte haiek. Gero Paris herri zikinera, nahiz eta denek eder kausitu, etorri ginen bizitzera. Hiri hori ez dut batere maite eta niretzat aro txarra izaten da egun eta gau, oren eta minuturo. Gainera, ama zainetan ezartzen da aitaz mintzatzen natzaio-larik; aita nola itzali zen ez dakit, egun batetik bestera gertatu zelako, baina badakit bost urterekin ezin nuela deus konprenitu. Eskolan ez dut lagun handirik; nire eskolako emaitzak biziki txarrak dira. Baina oporrak heldu dira eta bi hilabetez lasai egonen naiz. Horra nola laburtzen ahal den nire bizia. Etxeratzean, gelara joaten naiz amari hitzik erran gabe. Ama medikua da eta ondoko astean

Afrikara joan beharra da, hango behartsuak artatzeraz. Nik pentsatzen dut ni nauela gehiago artatu behar. Opor guzietarako amatxiren etxean utziko nau. Horrela, nire haur denborako herria ikusiko dut.

Astea iragan da. Amatzirengana joateko garaia da. Aita zendu zenez geroztik ez dut ikusia amatxi. Haren itxura ahantzi zait. Hango bazterrak-eta, ordea, nire bihotzean dira. Badakit amatxi ikustea zulo handi baten antzekoa izanen dela. Amarekin autora igan orduko, eztarrian korapiloa sortzen zait, Aldude ikusteko gogo biziarengatik. Herri eta hiri asko ikusiak ditut, mendi eta etxe andana, baina nire herria maiteago dut: Aldude!

Euskal Herrira heltzen ari gara eta ene begiek berriz dena deskubritzen dute. Bat-batean, gorriz inguratutako fondo zurian ikusten dut: ALDUDE. Nire bihotza punpaka hasten da. Eta bai, helduak gara istant batean! Malda izugarri luzea iragan eta, amatxiren etxera heldu garela ohartzen naiz. Amatxi hor dago, etxe aurrean beha. Haren etxea ez da nire haur denboretakoa bezalakoa, askoz hertsia da; oinez, hemendik oren erdi batera dago ene haur garaikoa. Autotik jausten naiz eta amatzirengana hurbiltzen, poliki-poliki: bilo luzeak ditu, gris kolorekoak, eta hauen gainetik begiratzen dit, begirada uros batekin; haren begiek dirdira egiten dute eta malko bat behera doakio, lore ugaritako soinekua hunkituz. Oinetan espartinak ditu. Amatziren lehengo edertasun eta gaztetasuna urteek lapurtu dizkietela ohartzen naiz, nire oroi-

tzapenak zuzenak badira bederen. Ama amatxi agurtzera doa:

–Egun on, ama!, bota du.

–Agur, Pantxika. Nola zara Oihana?, galdetzen dit amatxik.

–O...ondo, erantzuten dut ahots apalez.

–Ez beldurrik izan, ongi pasatuko dugu elkarrekin, erraiten dit doinu lasaigarri batean.

Ama badoa. Musu emanez agurtzen nau. Sartzen naiz barnera amatxirekin. Etxea argazkiz betea da: liburuetako amatxien etxeen antza du barneak. Amatxik neure etxean banengo bezala sentiarazten nau. Nire oroitzapen zaharrak piztuz doaz: amatxirekin bixkotxak egiten, bizikleta ttipia, izozkiak jaten... Amatxik nire poltsak ganberara ekartzen dizkit eta etxea erakusten dit; ez da gela askorik eta, erran dudan bezala, amatxiek izaten ohi dituzten etxe arruntetako bat da. Ondotik, telebisita ikustea proposatzen dit, eta haren erranak segituz, ikustera noa.

Egun guzia horrela iragan da eta hurrengo aste guzia ere bai. Bihar, aldiz, amatxi lagun baten bisitatzera joanen da eta bakarrik izanen naiz egun osoan, baina oraingoz oheratzen naiz.

Eguzkiak erridauak urreztatzen dituelarik, nire begiak irekitzen dira: goiza dela sumatzen dut. Amatxi joana da. Egun osoa dut etxearen deskubritzeko. Askaltzen dut eta nire zereginekin hasten. Armairuak irekitzen ditut: basoak, azpilak... deus ez interesgarririk! Xerka eta xerka ari naiz eta... Ah! liburuak! Eta argazki zaharren bildumak.

Begirutzen ditut. Amatxi eta ni gara argazki gehienetan agertzen, eta momentu horretan ikusten dudanak oroitzapen bikainak pizten dizkit: gure lehengo etxearena da. “Pinpin Xorienea” zuen izena gure etxeak. Etxea zoragarria da! Argazkia, aldiz, ez da egoera onean. Etxea ez da aski ongi ikusten, aski uhertua da irudia, urak hartua duela dirudi. Erabaki bat hartzen dut: gaur bertan, arratsalde honetan joanen naiz etxearen bisitatzera! Nahiz eta etxea abandonatu genuen; atzo, amatxik hemen gelditzeko aholkaturik ere...

“Ku-ku, ku-ku”, eguerdi jotzen du amatxiren ordulari zaharrak, txoriñoak gordelekutik burua azaltzen duen momentuan. Amatxik bazkaria berturik utzi dit labean: “mmmmhhh!”, lursagar ttipiak xerrikiarekin! Beti gauza onak prestatzen dizkit, aldi guzietan nire gustukoak!

Ernatzen naiz Pinpin Xorienaren bisitatzera joateko. Biziki maite dut esploratzen ibiltzea. Amak usu erraten dit ausarta naizela; biziki on egiten dit hori erraten didalarik, nire alderdi onak ez dituelako kasik sekula aipatzen... hara joateko prestatzen naiz. Ez dut deus aherentzi behar. Inoiz baino nahikari handiagoa dut ibiltzeko. Ordua da orain, banoa.

Bidea luzea zela oroitzen naiz, eta, nire oroitzapenetan bezala, munduaren itzulia egiten ari naizela iruditzen zait. Hor dago etxea, hor gainean, ez da aldatu joan ginenetik. Hala ere, pixka bat zahartu dela iruditzen zait. Etxea mendiaren maldan dago, mendiaren oinetik ikusteko moduan. Haren

goialdean gure lehengo ardien pentzea dago, goizetan eguzkia hunkitu arte hedatzen dena; azpialdean aitarekin kuku-gordeka ibiltzen nintzen oihantxoak dago, eta horrek malkoak ekartzen dizkit. Etxearen inguruan, gure lehengo baratzea eta lorategia: lur agortuak desagerrarazi ditu. Etxeari dagokionez, hiru solairu ditu, biziki handia da eta ederra! Bakoitzak bere ametsetan nahiko lukeen bezalakoa! Gure herriko lehen etxea zela erran zidan amak; erosi ondoren, nire gurasoek berritu zuten. Nire ganberako leihoa atzematen dut etxea inguratzen duen murruren gaineko aldean. Mendi maldan dagoen harrizko bidea segituz noa, eta, hara! bihurgune baten ondotik, hortxe deskubritzen dut nire oroitzapen zoriontsuenen lekua, nire urrezko joia! Eraikin argi, eder eta handi horren ondoan, auto deskarga bat badela ohartzen naiz, nire etxe liluragarriaren irudia iluntzen eta suntsitzen duena. Zoritxarrez, etxeko atea hetsia da, eta ontsa oroitzen banaiz, gako hori amaren giltzen artean dago...

Arratsaldeko askaria hartzeko tenorea da. Hemen bertan, egurrezko enbor baten gainean pausatzen naiz. Arratsaldekoa jan ondoren, amatxiren etxera itzultzeko tenorea dela ohartzen naiz. Bidea, oraingoan, biziki laburra dela iruditzen zait. Helmugara heltzen naiz. Amatxi ez da oraino itzulia eta badakit bi oren baditudala amatxiren etxearen miatzeko. Ganberak, sukaldea, dena miatzen dut, eta bat-batean, bigarren solairuan, pasabideko sabaian borta ttipi bat atzematen dut. Baina

horren irekitzeko zerbait behar da, makila bat edo... Nire pentsamenduak harrabots batek gelditu ditu. Auto batena ote da? Amatxi?

Hor dago. Dena bildu behar dut. Hamar segundoz dena altxatzen dut. Aulki baten gainera jauzi egiten dut. Amatxi sartzen da. Ni agurtu ondoren, afariaren prestatzen hasten da. Ate misteriotsuari buruzko informazioak xerkatzen ditut. Amatziren ondoan, sukaldearen izkinan, makilak badira. Haietara doa nire begirada, baina amatxi nirekin mintzatzen hasten da:

–Beraz, Oihana, zer egin duzu egun?, galdegiten dit irribarre goxo batekin.

–Eeee... telebista so egin dut etaaa... eskolako liburu bat irakurri dut..., –erantzuten diot, egia erranez gero amatxi kexatuko baita...

–Ongi, –erantzuten dit.

Akiturik dirudi. Biziki goiz afalduko dugula erraten dit. Afaldu ondoren oheratzera noa.

Aste bat iragan da eta egun guzietz enoatzen naiz. Bi makila aurkitu ditut sabaiko atearen irekitzeko. Amatzik, ontsalaz, medikuaren ikustera joan behar du arratsalde honetan; horrek lauzpabost oren uzten dizkit bortaren irekitzeko, barnea bisitatzeke, amatziren medikua Baionan baita.

Badu hamar minutu amatxi abiatua dela. Oraintxe bukatu dut deserta. Bi makilak bigarren solairura eramanez ondoren, kadira bat hartzen dut. Lehen makilaren krakoa ate misteriotsuan dagoen zulo txoan sartzera entseatzen naiz, baina ez da sartzen, handiegia da. Agian bestearena pasatuko

da. Hala espero dut. Kadiraren gainean xutik ezartzen naiz eta krakoa sartzen dut eta itzultzen. Bai, ireki da! Eskailera batzuk jausten dira poliki-poliki. Zer bitxikeria! Kadiratik jausten naiz eta eskailera tiratzen dut nire zangoetaraino jausteko gisan. Gelak iluna dirudi. Eskailerak igotzen ditut. Gelara sartzen naizelarik, biziki beltza da, ganerra dela ohartzen naiz. Baina amatxik zergatik ez dit deusik erran gela honi buruz? Alta, etxea erakutsi zidan...

Ganer gehienak bezala, biziki zikina da barnea. Armairu zahar eta hautsiek, bereziki, gela betetzen dute. Armairuetan armiarmek beren bizitokia egina dute. Beharrik, ez naiz intsektu horietaz beldur, hemen ugari baitira. Lurrean pausaturik kutxa bat dago. Gela guzian dagoen objektu argi, berri eta garbiena da. Nirekin hartzea erabakitzen dut, eta ganerretik jausten naiz. Amatxik anitz objektu lekuz aldatu ditudala ikusten badu, ganerra bere baimenik gabe bisitatu dudala jakinen du. Dena bere lekuan ezartzen dut. Ganberara joaten naiz eta ohe gainean jartzen, kutxa barnean zer dagoen ikusteko. Gutunak dira, asko; hogeit bat gutun bat bestearen gainean ezarriak. Amatxiren helbidea, gutun guzietan, idazkera berarekin idatzia da eta zaharrenaren irekitzea deliberatzen dut, azpi-azpian kokatua dena. Gutun-azala ireki eta irakurtzen hasten naiz:

“2004ko urtarrilaren 15a, ostirala

Egun on, Pantxika,

Zergatik kexatu ginen hain bortizki? Nik beti maite zaitut, baina gure artekoa gelditzea nahiago

baldin baduzu, hala izan dadila. Jakin behar duzu gertatu dena istripu bat izan dela eta ez dut egin nahi eskatzen didazuna. Gure etxetik joan naiz ni ere eta orain Bordele hirian bizi naiz. Oihana zaindu nahi dut. Elkarren artean partekatu behar ditugu zainketak: Oihanak bi gurasoak ikusi behar ditu! Ez dut bidezkoa kausitzen zuk nire uzteko izan duzun manera, eta jakin nahi nuke non bizi zaren orain. Nik beharko nuke kexu izan eta ez zuk.

Erantzun laster!

Iñaki”

Aitak zion idazten amari eta data ikusiz, oharitzen naiz jadanik hila izan behar zuela. Beste gutunak irakurri ondoan dena ulertzen dut: aita hila dela gezur bat da. Ama, amatxi eta guziaren kontra kexu naiz! Nehori deus erran gabe etxetik ihes egitea erabakitzen dut.

Aitaren ikustera joanen naiz Bordelera. Haren gutunetan etxeko helbidea agertzen zen. Garaziko trenean Baionaraino eta gero Bordelera joanen naiz. Bidea luzea izanen da, baina ez dut deus egitekorik etxe honetan. Aski dut! Zergatik ez dit deus erran amak? Nire zakuan kanpadenda ttipi bat, beharrezko puskak eta sosa ezarri ondoren abiatzen naiz.

Baionara doan trenean sartzen naiz. Baionara heltzeko bidea ez da hain luzea. Hara heldu eta, Bordeleko trenea hartzen dut. Bidea luzeagoa izanen da. Lo pixka bat egitea deliberatzen dut. Bozgorailuko emazte-ahotsak iratzartzen nau.

Frantsesez erraten du Bordelera iritsi garela. Zakua bizkarrean ezartzen dut eta trenetik jausten naiz. Badakit nire ausartasuna biziki garrantzitsua dela horrelako momentuetan. Amak oporrak aitzin eman zidan bere sakelako zaharrean begiratzen dut: amaxik hamaika aldiz dei egin dit. Baina ni, orduan, lo nintzen. Amaxirekin ez dut gehiago mintzatu nahi. Sakelakoa itzali eta zakuan biltzen dut. Begiak altxatzen ditut eta ohartzen naiz izugarri handia dela Bordele, Parisen antzekoa dirudi. Gaua da, eta ohartzen naiz aita ez dudala orain atzemanen. Biziki berant izan aitzin, aterpe baten bila hasten naiz. Han muntatzen dut nire kanpadenda. Ondoren lo egin behar dut. Ez dut pentsatu nahi biharko egunari, badakit aitaren aurkitzea zaila izanen dela.

Goizean goiz iratarri nau kanpadenda inguruko mugimenduak. Gizon batzuk oihu egiten didate: “Xutik, hor barnean, xutik!” Denda irekitzean ohartzen naiz polizia dela: “Zu Oihana deitzen zara ezta?” Esplikatzeko didate amaxik nire desagertzea seinatu zuela eta hark eman xehetasunetarik heldu zirela nigana. Tren bat erreserbatu didate, zuzenean Baionaraino joanen dena.

Hala, Baionara heltzen naizelarik, amaxi geltokian dago nire besarkatzeko prest. Gero, bere autoan Alduderaino eramaten nau. Han, pozik, negarrez besarkatzen nau berriz: “Oihana, Oihana maittea! Ama bi egunen buruko hor izanen da eta guzia azalduko dizu. Atzo gauean Iñakiren gutunak zure ganberan ikusi nituenean, dena ulertu nuen.”

Bi egunen buruko, ama Alduden da gurekin: “Barkaidazu, Oihana, barkaidazu! Zu sortu zinenean aita eta biok biziki zorionsuak ginen, amodiozko sentimendu handiak genituen batak bestearentzat. Inork ez bezala maite genuen elkar. Baina zure aitak lana galdu zuen zuk hiru edo lau urte zenituelarik eta alkohola edaten hasi zen: bi edo hiru baso edatetik sei eta zapietara pasatu zen, erasokorra bilakatzen zen gero eta gehiago. Desintoxikatzeraz joateko galdegin nion, ez bainuen gehiago maite horrela zenean, eta zuregatik, bistan dena! Ez zuen deus entzun nahi. Gau batez inoiz baino gehiago edan zuen. Ni, lagunekin, Baigorriko karriketara joan nintzen ideien argitzera eta momentu goxo baten pasatzera. Etxean sartu nintzenezan mozkorturik aurkitu nuen. Biziki beldur nintzen. Gau horretan lehen aldiz jo ninduen, eta hori ez nuen onartzen ahal! Beraz, poltsak prestatu eta etxetik joan nintzen zurekin. Alkoholak zure aita hautsi du. Gainera, pentsatzen dut ni joan eta gero gehiago edaten segitu duela; ez dizut deus erran, babesteko. Ez nuen nahi zure aita ikus zenezan, baina hila zela erratean oraindik gehiago trisztatzen zaituela ikusten dut. Barkaidazu...!”

Orain ulertu dut zergatik izan den gezur hori. Ez dut aita sekula ikusi nahi, amak harengatik sufritu duelako eta niri ere berdin gertatzen ahal zaidalako.

Hemendik aurrerako bizia askoz argiago ikusten dut, Euskal Herriko oihanak bezain eder eta aberatsa.